

[Eusk/Cast] NATOEB ez! Euskal Herria antiimperialista

NATOREN ETA EBREN AURKAKO HERRI EKIMENA, BARDENAS YA ETA ASKAPENA ::
10/02/2023

El contexto actual requiere de forma necesaria y urgente reivindicar una Euskal Herria antiimperialista e internacionalista

[Euskara]

NATO-EB ez! Euskal Herria antiimperialista!

Egungo testuinguruak urgentziaz eskatzen du Euskal Herri antiimperialista eta internazionalista baten aldarria. “NATO eta EB ez, Euskal Herria antiimperialista!” mobilizazioaren deitzaileok norabide horretan lehen pausotzat dugu gaurko deia.

Sistema kapitalistaren krisi testuinguru betean gaude. Potentzia burges handiak kapitalaren metaketa prozesua birmoldatzen saiatzen ari dira, eta, ondorioz, langile klasearen aurkako erasoaldia areagotzen. “Aparteko aldi” batez hitz egiten digu burgesiak; esaten digu gertakari koiuntural jakin batzuek lehertu dutela egungo krisi ekonomiko, politiko, sozial eta ekologikoa. Eta horren aurrean, garrantzitsua da azpimarratzea krisiak ez direla salbuespena, ez direla apartekoak; alderantziz, sistema kapitalistari berari dagokion ezaugarri bat da krisia.

Bestalde, Estatu Batuen hegemonia ekonomiko, politiko eta militarra aldatzen ari den unean gaude. Txina eta, neurri txikiagoan, Errusia beren eragin ekonomiko eta politikoa areagotzen ari dira munduan, eta horregatik ari dira potentzia atlantistak ofentsiba Ekiaderantz garatzen, hain zuen ere, beren kontrolari eusteko. Testuinguru honetan kokatu behar ditugu imperialismo atlantistaren nahiz bere erakunde kriminal NATOrén eta, nola ez, Europar Batasunaren mugimenduak.

Argi izan behar dugu NATOrén papera formazio militar soila izateaz haragokoa dela. Egia da, bai, burgesiaren armada dela nagusiki; hala ari da erakusten Donbassen, eta hala erakutsi zuen bere garaian Jugoslavian, Libian eta Sirian. Horrez gain, ordea, badu beste funtzi bat: kapitalaren politikei aurre egiten dien edozeinen aurka egiteko adar militarra izatea. Gaur egun, askotarikoak dira berekin dakartzan emaitzak: langile klasearen gainesplotazioa eta prekarizazioa; lan eskubideetan aldaketak, klase borrokaren bitartez irabazitako kontzesio materialak kentzeko; lege aldaketak, borroka horien aurreko errepresioa areagotzeko... Zentzu horretan, adibide argia dira Estatu espainoleko alderdi sozialdemokrata guztiak onartutako azken aurrekontu orokorrak. Herri langileen baldintza materialak okertza babesten dute, NATOrén mesedetara; izan ere, gaitasun gehiago eman zaizkio, eta burgesiaren interesak defendatzeko azpiegitura zibilak eskuratzeko eskubidea aitortu zaio.

Horregatik guztiagatik da beharrezkoa burgesiaren aparatu politiko guztiak suntsitzea, Euskal Herriaren kasuan, bai Estatu espainola, bai frantsesa, baina baita Europar Batasuna ere; neurri ekonomiko eta errepresiogileei eta gerra imperialistei aurre egin nahi badiegu

behintzat. Herri langileon borroka aldarrikatzea dagokigu, eta batzea, imperialismoaren azken erasoaldiari aurre egiteko. Une hau aprobetxatu nahi dugu, Donbasseko errepublikekiko elkartasuna adierazteko ere.

Euskal Herrian gertutik ezagutzen dugu zer irudikatzen duen NATOk: Bardeako poligono militarra, Gasteizko Arakako basean egindako ariketa militarrak, gasto militarra areagotzeko euskal alderdi eta instituzioek emandako babes, eskubide murrizketak, oinarrizko gaien prezio igoerak, langile klasearen bizi baldintzen okertza, errepresioa... Eta ezin dugu inolaz ere ahaztu NATOk bere garaian emandako babes logistikoa, Euskal Herriaren askapen borrokaren kontra diseinatutako estrategian. Azken urteotan, hainbat aldiz salatu da Santurtziko portua erabili izana gatazketara armak bidaltzeko, imperialismo atlantistaren mesedetara.

Horregatik guztiagatik, hemen bildutako eragileok dei egiten dugu martxoaren 11ko mobilizaziora, NATO buru duen azken ofentsiba imperialistari aurre egiteko eta Euskal Herri antiimperialistaren aktibazioa aldarrikatzeko.

NATO ez!

Gora Euskal Herria antiimperialista!

[Castellano]

NATO-EB ez! Euskal Herria antiimperialista!

El contexto actual requiere de forma necesaria y urgente reivindicar una Euskal Herria antiimperialista e internacionalista. Las organizaciones que convocamos la movilización “NATOEB ez! Euskal Herria antiimperialista” consideramos que esta movilización puede ser un primer paso en este sentido.

Nos encontramos en un contexto de crisis del sistema capitalista, en el que las grandes potencias burguesas están tratando de recomponer el proceso de acumulación de capital y profundizando en la ofensiva hacia la clase trabajadora. Pese a que la burguesía nos hable de un “periodo especial” en el que determinados eventos coyunturales han desembocado en la actual crisis económica, política, social y ecológica, es importante subrayar que las crisis no son una excepción, sino una característica intríseca del propio sistema capitalista.

Es un momento también en el que la hegemonía económica, política y militar de Estados Unidos está cambiando. China, y en menor grado Rusia, están aumentado su influencia económica y política en el mundo, y es por ello que las potencias atlantistas están desarrollando una ofensiva hacia el Este para mantener su control. Es en este contexto donde debemos situar los movimientos del imperialismo atlantista y su organización criminal, la OTAN, a los que está ascrita también la UE.

Debemos entender que el papel de la OTAN va más allá de su mera formación militar. Si bien es verdad que principalmente es el ejercito de la burguesía (y así lo esta demostrando en el Donbass, como lo demostró también en Yugoslavia, Libia o Siria), además tiene la

función superior de ser el brazo militar contra cualquiera que se oponga a las políticas del capital. Hoy en día estas se traducen en la sobre-explotación y precarización de la clase trabajadora, especialmente las mujeres y las personas racializadas, cambios en los derechos laborales para privarnos de las concesiones materiales ganadas mediante la lucha de clases, cambio de leyes para aumentar la represión ante esas luchas, etc. Un claro ejemplo son los nuevos Presupuestos Generales del Estado español, aprobados por todos los partidos socialdemócratas, y que amparan el deterioro de las condiciones materiales de los pueblos trabajadores para beneficiar a la OTAN, dándole más capacidad y reconociéndole el derecho de apropiarse de infraestructuras civiles para defender los intereses de la burguesía.

Es por todo eso que consideramos que para hacer frente a estas medidas económicas y represoras, así como a las guerras imperialistas, es necesario destruir todos los aparatos políticos de la burguesía, tanto los estados español y el francés, en el caso de Euskal Herria, como la Unión Europea misma. Lo que nos corresponde es reivindicar la lucha de los pueblos trabajadores, así como unirnos para hacer frente a esta nueva ofensiva del imperialismo. En este sentido, queremos aprovechar esta ocasión para mostrar nuestra solidaridad con las repúblicas del Donbass.

En Euskal Herria conocemos bien lo que representa la OTAN: el polígono de entrenamiento militar en las Bardenas, ejercicios militares en la base de Araca (Gasteiz), apoyo del aumento de gasto militar por los partidos e instituciones vascas; recorte de derechos, subida de precios a bienes básicos y empeoramiento de las condiciones de vida de la clase trabajadora, represión... Tampoco podemos olvidar el apoyo logístico de la OTAN en la estrategia de contrainsurgencia en Euskal Herria. En los últimos años han sido numerosas las protestas por el uso del puerto de Santurtzi para el envío de armas a diferentes conflictos en beneficio del imperialismo atlántista.

Por todo ello, el próximo 11 de marzo las organizaciones convocantes llamamos a la movilización para hacer frente a esta nueva ofensiva imperialista liderada por la OTAN, y reivindicar la activación de la Euskal Herria antiimperialista.

NATO ez!

Gora Euskal Herria antiimperialista!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-natoeb-ez-euskal>